



# Banaketak kulturen duen zereginari buruzko azterketa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

# Banaketak kulturaren zereginari buruzko azterketa

Testuinguru digitalaren aurrean: ikuspegi orokorrak eta sektorialak

## 1\_Aurkezpena \_3

## 2\_Kultura-erakundearen funtzioak \_4

- 2.1. Bitartekaritza eta ikusgaitasuna \_4
- 2.2. Eskubideak eskualdatzea \_5
- 2.3. Logistika \_6
- 2.4. Eragin digitala \_6

## 3\_Banaketa eta ustiapen-eskubideak \_7

- 3.1. Ustiapen-eskubideak \_7
- 3.2. Ordaina jasotzeko eskubidea \_8

—

## 4\_Sektoreetako banaketa: kasuistika propioak eta eraldaketak \_9

- 4.1. Liburua \_10
- 4.2. Arte eszenikoak \_11
- 4.3. Musika \_13
- 4.4. Zinema \_14
- 4.5. Ikusizko arteak \_15

## 5\_Joera globalak \_17

## 6\_EAeko banaketaren azterlanera hurbilketa \_19

## 7\_Azken iruzkina \_20

# 1\_Aurkezpena

Kulturgintzaren zati nabarmen batek merkatuaren dinamikaren mende jarduten du. Produktu baten balio-katearen eskemaren bitartez ezaugarritzen bada, urrats nagusiak bereiz daitezke: eskuarki, sortzen denetik hasi eta merkaturatu arte, ekoizpena, banaketa eta erakusketa ere barnean hartuta, ordena horretan.

Kulturaren Euskal Behatokiaren kultura-estatistikak, batik bat, ekoizpenaren eta erakusketaren inguruan ardatzu dira. Nahiz eta banaketa alderdi garrantzitsua izan sektoreko merkatu-dinamikaren barruan, operazio horietan ez da aztertu.

Kultura-banaketa fenomeno berezia da, beste sektore batzuekin alderatzen badugu. Kultura-produktuen izaera dela eta, banaketaren negozioak lotura hertsia du egile-eskubideekin eta obra ustiatzeko eskubideekin. Digitalizatzeko prozesuak biziki zaildu du jokalekua. Hau da, hasieran, arauak oso argiak eta funtzionalak ziren; orain, ordea, arauak gutxi zehaztuta eta egokitu gabe daude, eta, hortaz, lekuz kanpo egotearen sentsazioa sortu da.

Txostenak testuinguruan jartzen du banaketaren arloa, kultura-eremuaren barruan eta digitalizatzeko prozesuarekin lotuta. Azken helburua, beraz, banaketako eragileen gaineko ikerlan espezifikoaren eragiketa estatistikoetan sartzeko beharra eta aukera aztertzea da.

Horretarako, bost atal handitan antolatu da txostena. Lehenik eta behin, funtzio nagusiak aztertuta hurbilduko gara banaketaren prozesura: logistika, bitartekaritza eta ikusgaitasuna, eta eskubideen eskualdaketa. Atal horretan, digitalizazioaren eragina jorratzen da (oro har soilik; izan ere, sakonago aztertuko da ondorengo atal batean). Bigarrenik, eskubideak eskualdatzearekin lotutako ikuspegia azalduko da, kultura-banaketaren atzean gordetzen den konplexutasunari buruzko ideia bat emateko. Konplexutasun-maila areagotu egiten da kulturaren azpisektore nagusi bakoitzaren berezko kasuistika kontuan hartzen badira (liburuak, arte eszenikoak, musika, zinema eta ikusizko arteak). Ildo horretan, balio-kate tradizionala, banaketa molde zehatzak eta gertatu diren eraldaketa digitalak deskribatuko dira. Ondoren, identifikatu diren joera orokorrak azalduko dira, gaur egungo testuinguruaren laburpen gisa, balorazioa orientatzeko balio dezaten. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoko estatistikei lotuta aztertuko da kasua.

# 2 Kultura-erakundearen funtzioak

Banaketak hiru prozesu edo funtziotan du eragina, eta lotura dute elkarrekin askotan:

- Bitartekaritza eta ikusgaitasuna (hau da, lan bat erakusketa-agenteen edo saltokien artean ezagutzera emateko lanak)
- Eskubideak eskualdatzea (lan bat ustiatzeko egiten diren ekintzak hartzen ditu barnean)
- Logistika (teknologiak, biltegiak, garraioa, eta abar)

Atal honetan esparru orokorra azalduko da, banaketa zer den ulertzeko; horretarako, oinarritzko hiru funtzio horiek eta balio-katean digitalizazio-prozesuak izan duen eraginari buruzko ikuspegi orokorra hartuko ditugu oinarritzat.

## 2.1 Bitartekaritza eta ikusgaitasuna

Balio-kate osoan zehar, batzuetan beharrezkoa izaten da eragileak elkarrekin lotzen dituen bitarteko kate-maila bat egotea, ekosistema arina eta integratua lortzeko. Sektoreak ongi funtzionatzeko, ezinbestekoa da sorkuntzatik merkaturatu arte egin beharreko zereginen arduratuko diren eragileak edukitzea.

Banaketa funtsezko pieza da kate horretan, lan bat sortu eta ekoitzi ondoren eroslea bilatzeaz arduratzen baita. Merkatuaren bitartez erabiltzaileengana iristeko modua ematen du.

Lana ikusaraztea da bitartekaritza-lan horren helburua, eta kateko bi nodoren artean kokaleku aktiboa edukitzea eskatzen du. Eroslea berehala aurkitzeko ez ezik, beste helburu batzuk lortzeko ere ikusaraz daiteke lana; besterik gabe, banatzaileak katalogoan duen lan bat edo lan-multzo bat ezagutzera emateko eta haien publizitatea egiteko baliu daiteke. Hori horrela, banatzaileak saltzaile-lana betetzen du.

lido horretan, kultura-banaketari dagokionez, berariazko tresna edo mekanismo batzuk daude bitartekaritza egin eta ikusgaitasuna emateko:

- Plataformak
- Sareak eta aliantzak
- Zirkuituak
- Azokak eta merkatuak

Plataformetan askotariko lanak biltzen dira, eta nork bere burua ikustera emateko leku bat dira. Lanak batuta, presentzia eta ikusgaitasun handiagoa lor daiteke, eta hori abiapuntu gisa balia daiteke. Gainera, batasun horren bitartez desberdintzeko aukera ere ematen dute plataformek, aldaerak dituen produktu espezifiko bat aurkeztuta. Eremu digitalaren izaerak testuinguru horretan plataformak garatzeko bidea zabaldu du, batez ere zinemari, musikari eta liburuari dagokienez.

Halaber, sareak errazago sortzeko aukera eman du eremu digitalak, eta haien garapen digitala ahalbidetu du, distantziak murriztuta trukea erraztu den testuinguru batean. Sareen bitartez, gainera, baliabideak eta ikusgaitasuna lor daitezke, eta horrela banaketa hobetu daiteke; horregatik hartzen da parte haietan, helburuok erdietsi nahian.

Sareak zabalak dira, eta asmo orokorragoa dute; hala ere, emaitzak hobetzeko estrategia arrakastatsua da aliantza zehatzak egituratzea, kasu honetan banatzaileen artean edo balio-kateko beste edozein mailatan diharduten eragileekin. Gaur egun, aldaketa digitala tarteko, baita edukietan interesa duten edo horiek eremu digitalean garatzeko euskarri ematen duten beste sektore batzuetako eragileekin ere.

Zirkuituek oso garrantzi berezia dute arte eszenikoetan eta zuzeneko musikan. Izan ere, zirkuituek jartzen dituzte ekoizpenak eta erakusketa-guneak harremanetan, eta, hala, horiek ikusarazteko eta bira/banaketa egiteko bidea ematen dute. Zirkuituek ekoizpenen publizitatea egiten duen katalogo bati jarraitzen diote, eta hortik abiatuta programatzen dute erakuslekuak.

Azkenik, bitartekaritza egiteko eta lanak ikusarazteko ohiko mekanismoak dira azokak eta merkatuak ere. Sorkuntzaren, ekoizpenaren eta banaketaren beraren arloko eragileak ez ezik (lanak erakusteko), erakuslekuak, programatzaileak, salmenta-guneak edo zuzenean erabiltzaileak gonbidatu ohi dira ekitaldi horietara. Ikusizko

arteetan, arte eszenikoetan eta liburugintzan, azokek garrantzi nabarmena dute negoziarako. Ekitaldi horien eragina kontratazioen eta salmenten gorakadarekin lotuta dago, ekitaldian bertan nahiz ondoren, sektore motaren eta ekitaldi zehatzaren arabera.

## 2.2 Eskubideak eskualdatzea

Kultura-sektoreko dinamika ekonomikoaren zati garrantzitsu batek zerikusia du eragileen artean eskualdatzen diren eskubideen salerosketarekin.

Sortzen diren unetik aurrera, lanek egile-eskubideak dituzte; hots, egileek beren lanen gaineko titulartasuna dute.

Sorkuntza- eta ekoizpen-prozesuaren emaitza da lana; bada, era berean, banaketaren emaitza lana zirkulazioan jartzea da. Zirkulazioa helburu ekonomikoak lortzeko egiten da eskuarki, eta horrek sektoreko ekonomia funtzionarazten du, soziala nahiz merkatukoa izan, diru mugimenduak sortuz.

Atal hau da txosten honetako garrantzitsuenetako bat, eta, horregatik, bere txokoa du aurrerago, baina testuinguruan kokatzeko saio honetan labur-labur azalduko da zer esanahi duen horrek.

Obra bera da banaketaren oinarria, baina, horrez gain, zenbait mailatan egiten zaizkion aldaketak ere har ditzake barnean: itzultzea, beste lan baten barruan nahastea, bertsioak egitea, bestelako ekoizpen edo edizio batzuk egitea... Aurrerago azalduko den bezala, ekintza horiek guztiek eskubideen eskualdaketa dakarte berekin, eta hori banaketa-ekintzaren funtsezko alderdia da (eta berau ezaugarritzen du).



## 2.3 Logistika

Logistika banaketaren atal erabakigarria da. Jokaleku digitalak haren garrantzia handitu du, banaketa fisikoa egiteko tresna digital berrien bitartez zenbait formula eman eta soilik digitala den banaketa mota sortu baitu.

Logistikak, banaketako prozesu bat den aldetik, eroslea bilatzeko lanak ahalik eta errentagarrienak, eraginkorrenak eta egokienak izateko beharrari erantzuten dio, kalitateko produktu bat emanez. Lan bat erakuslekuetan edo salmenta-guneetan edo erabiltzailearen beraren esku jartzearekin lotuta dago. Zalantzarik gabe, sektore bakoitzak oso premia desberdinak izan ditzake; izan ere, dena delako produktu amaituaren izaera eta ingurunea kontuan hartuz gauzatzen da logistika.

Adibidez, liburuaren kasuan, oraindik ere oso alderdi garrantzitsua da logistika. Aldiz, musika-lanak formatu fisikoan banatzeko jardueran, eragin digitala dela eta, minimora murriztu da logistika, musika-dendak ia-ia desagertu direnez. Arte eszenikoen inguruan, zeregin erabat desberdina betetzen du logistikak, modu industrialean ekoizteko aukerari dagokionez oso desberdina delako jarduera hori. Arte eszenikoetan bereizezinak dira logistika, banaketa eta erakusketa, eta muntaketa bakoitzak mugimendu logistiko berria egitea eskatzen du.

Logistikarekin lotuta, banaketaren eta eskariaren auziak daude, eta banaketa-fluxuari euskarri ematen dioten baliabideak eta tresnak ere bai. Zenbaitetan, oso garrantzitsua izan daiteke hori. Digitalizazioak molde berriak ahalbidetu ditu (adibidez, eskaripekoak), eta halakoek bestelako banaketa-logistika bat behar dute. Liburugintzari dagokionez, adibidez, alderdi garrantzitsua da biltegiartzearekin eta alderantzizko logistikarekin lotutakoa (itzultzeak).

## 2.4 Eragin digitala

Eraldaketa digitalak erronka erabakigarria bota dio kulturari, edukien eremuari begiratuz gero. Aldaketa horrekin, bi munduren arteko mugan daude edukiak: bata analogikoa, ongi ezarritako arauak dituen; bestea digitala, ongi finkatu gabeko arauak dituen. Eraldaketa digitalak ateak ireki dizkie edukiak ustiatzeko modu berriei. Gainera, berez kulturagintza ez diren beste sektore batzuen interesetara zabaldu da: telekomunikazioak, hedabideak eta informazioaren teknologiak.

Sektore horiei interesa ematen diena, batetik, edukien balioa da (adiera zabalenean ulertuta, prozesatutako eta erabiltzaileei eta haien hobespenei egokitutako informaziotzat), eta, bestetik, edukietara sartzeko bidea ematen duten bitartekoak.

Paraleloki aztertzen bada edukien eta sarbideen garrantzia, ikus daiteke **presio digitalaren mende dagoen produktu oro zerbitzu-eskaintza bihurtzen** dela: tokia, testuingurua eta formatua edozein izanik ere edukiak atzitu eta eraginkortasunez erabiltzeko aukera ematen duen zerbitzu bat.

Edukien eta sarbideen arteko bateratze horrek negozio-aukera eta -eredu berriak ekarri ditu berekin, edukiak ustiatzeko formula berritzaile eta berriak ere barne, eta legeek, oraindik errealitate berrira egokitzeko prozesuan daudenez, ez dituzte halakoak jasotzen.

Banaketa fisiko eta digitalaren arteko eraldaketa sakonenetako bat balio-kate osoari dagokio. Banaketari eragin dioten aldaketek sorkuntzan, ekoizpenean eta erakusketan ere izan dute eragina, eta, nagusiki, kate-maila horien guztien kokaleku erlatiboa aldatu dute. Alderdi horretan, azpisektore bakoitzaren kasuistika bereziak gorabehera, kultura-sektoreko digitalizazio-prozesuak **balio-katearen integrazio bertikala** ekarri du berekin. Aurrerago ikusiko den bezala, azpisektore guztietan ikus daiteke joera hori: sektore bakoitzak bere kasuistika duenez, gerta daiteke eraldaketan zenbait berezitasun egotea, baina ageri, guztietan ageri da.

# 3 Banaketa eta ustiapen-eskubideak

Banaketa mesedetan ustiatzeko eskubideak egile-eskubideetatik ondorioztatzen dira, eta balio soziala dute sormen-indarra babesteko neurri gisa, ezagutzan (eskubide moralak) eta ordainean (ondare- edo ustiapen-eskubideak) oinarrituta.

Ustiapen-eskubideak sormena finantzatzeko alderdi erabakigarria dira. Beraz, kulturaren balioetik<sup>1</sup> datorren interesa, baita eskaririk eta beharrik ere, gizarteak askotariko edukia eskatzen baititu. Hori horrela, sorkuntzarako pizgarri moralak eta ekonomikoa da egile-eskubideen babesa, alderdi guztietan.

Kulturaren arloko banaketaren oinarria, batetik, lanaren salmenta da (eta horren barruan sartzen da logistika, argi eta garbi), eta, bestetik, eskubideen eskualdaketan edo salmenta. Interesaren oinarria, ikuspegi ekonomikotik, banaketa ustiapen-eskubideen bitartez egitean datza (ingelesez «copyright» deritzona).

Atal honetan, lehenik eta behin, banaketari eta ustiapen-eskubideei buruzko oinarriko kontzeptuetara hurbilduko gara (erreproduzitzeko, eraldatzeko, banatzeko eta jendaurrean komunikatzeko eskubideak). Bigarrenik, ordaina jasotzeko eskubideen auziari helduko zaio, ikuspegi argitzen eta osatzen laguntzeko. Aurrekoetatik gertu badago ere, interes handiagoa du sorkuntzaren ikuspegitik banaketarenetik baino.

## 3.1 Ustiapen-eskubideak

Egile-eskubideak araututa eta babestuta daude<sup>2</sup>, artelanak eta arte-produktuak sortzeko, ekoizteko, banatzeko edo erakusteko egin den inbertsioa (denborazkoa nahiz diruzkoa) balioetsi eta sustatu dadin. Lanaren sortzaileen aitortzea ez ezik, haien ordain ekonomikoa eta zenbait salbuespen ere hartzen ditu barnean.

4\_ Kulturaren balioa eta behar publikoan sakontzeko, «Kulturaren balio publikoa» txostena kontsulta daiteke (Kulturaren Euskal Behatokia, 2018):

[http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb\\_argit\\_balio\\_publicoa\\_2018/eu\\_def/adjuntos/Kulturaren\\_balio\\_publicoa.pdf](http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_balio_publicoa_2018/eu_def/adjuntos/Kulturaren_balio_publicoa.pdf)

5\_Espainiako estatuan, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateginak arautzen du jabetza intelektuala (apirilaren 12ko 1/1996 Legea).

Egile-eskubideen salmentara hurbiltzeko<sup>3</sup>, interesgarria da horien sailkapenera jotzea. Lehenik, aipa daiteke eskubide moralak ezin direla ez eskualdatu ez saldu. Ustiapen-eskubideetan eta, zehazkiago, **eskubide eskusiboetan** datza interesa. Azken horiek egileak berak edo haren ondorengoek baimendu behar dituzte, eta eskualda daitezke. Horien artean, honako hauek sartzen dira:

**Erreproduzio-eskubideak.** Banaketaren oinarria da, baina ez da halaberrez banaketarik egon behar. Lana edo lanaren zati bat euskarri batean finkatzearekin lotuta dago, ondoren hortik abiatuta komunikatu eta kopia ahal izan dadin. Lan bat digitalizatzeak, orobat, hura erreproduzitzea eta euskarri ukigarri nahiz ukiezinetan finkatzea esan nahi du. Adibidez, inprimatutako dokumentu bat eskaneatzea digitalizazioaren parte da, eta erreproduzio-ekintza bat hartzen du barnean.

**Eraldaketa-eskubideak.** Zenbaitetan, lana egokitzea, itzultzea edo beste eraldaketa batzuk egitea eskatzen du banaketak. Ekintza horiek eraldaketa bat egitea eskatzen dute, eta eskubideen artean ere jasota dago hori. Eraldaketaren emaitza egile berria izango duen lan eratorria edo konposatua izango da (adibidez, abesti baten bertsioa).

**Banaketa-eskubidea.** Eskubide hauek merkatuan edo erabiltzaileen artean banatzeko ekintzari dagozkio soilik. Kontua lan bat jendarteratzea da (jatorrizkoa, kopia finkatua nahiz eraldatua izan), salduz, alokairuz, maileguz, etab., baita etekin ekonomikorik ateratzen ez bada ere.

**Jendaurreko komunikazio-eskubideak.** Lana jendaurrean komunikatzeko ekintzaren eta banaketa-ekintzaren arteko desberdintasuna bakarra da: lehenengoak lana erakustea hartzen du barnean, eta ez erreproduzioa. Jendaurreko komunikazioak publiko orokorrari sarbidea ematen dio. Adibidez, jendaurreko komunikazio-ekintzat har daitezke arte-galeria batean margolana erakustea, edo Interneten eduki irekiak jartzea, baita erakunde baten barruko Intranet sare itxietan ere.

Askotariko ustiapen-ekintza horiek direla eta, eskubideekin lotutako negozioa edo merkaturia agertu da. Eskubide horien salerosketak merkatu propio eta konplexua sortu du kultura-banaketaren barruan, eta prozesu horretan zenbait eragile bereizi dituzte.

## 3.2 Ordaina jasotzeko eskubidea

Gainera, ikuspegia zabaldu eta **ordaina jasotzeko eskubideei** buruz ere hausnar daiteke. Ordaina jasotzeko eskubideak eskubide-lagapenerako sarearen ondorioz agertu dira; ez dira berez eskualdaketa bat, baina interesgarria da horiek azaltzea, banaketa bidezko ustiapena ez ezik, erreproduzio eta erakusketa bidezko sorkuntza ere kontuan hartuko duen ikuspegi orokorra emateko.

Ordaina jasotzeko eskubideen etiketaren barruan, jardunbide multzo anbigua, irekia eta zehaztugabea sartzen da. Alor hori ez dago bateratuta, ez Europa mailan ez nazioartean. Adibidez, kopia pribatuagatik ordaina jasotzeko eskubidea dago Espainiako estatuan; erreproduzio eskubidearen titularraren baimenik gabe erabilera pribaturako kopiak erreproduzitzeari dagokio. Kopia pribatuaz gain, gauza bera gertatzen da beste jardunbide batzuekin ere: horien artean, nagusiki, mailegua, alokairua eta irratidifusioa komunikazio publikoak aipa daitezke.

Zenbaitetan, kudeaketa kolektiboko erakundeak arduratzen dira ordaina antolatzeaz, baina alderdien arteko hitzarmenez edo auzitegi baten jarduketaren bitartez ere antola daiteke.

Ordaina jasotzeko eskubideen kasuan, ustiapen-eskubideekin gertatzen ez den bezala, lanaren egileak ezin ditu baimendu edo debekatu ekintza edo jardunbide guztiak. Aitzitik, ordaina jasotzeko eskubidea du. Musikaren eta ikus-entzunezkoen kasuan, adibidez, ekoizleak baimentzen edo debekatzen du, eta legeek edo eskubideen kudeaketa kolektiboko tarifa orokorre mugatutako diru kopuru bat ematera behartzen da (aurrerago aurkeztuko dira erakunde horiek). Hala, ustiapenaren antolatzaile nagusiari esleituta ekoizpen-eginkizuna, eragilean eta eskubide-lagapenaren sarea sinplifikatzen da, baita eskubideen titular diren guztiei baimena eskatu beharra ere.

3\_ Legeria osora hurbiltzea laborra egiteko, Espainiako Gobernuaren Kultura eta Kirol Ministerioaren esteka hau kontsulta daiteke: <http://www.culturaydeporte.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/propiedadintelectual/portada.html>



# 4 Sektoreetako banaketa: kasuistika propioak eta eraldaketak

Kultura-banaketa orokorrean hitz egin daiteke, txostenaren bigarren atalean egin den bezala, baina badira bi auzi, kultura-mailan fenomeno konplexuago bihurtzen dutenak:

- 1. Kulturaren azpisektoreen kasuistika propioak:** logistika, bitartekaritza eta eskubideen lagapena modu desberdinean gauzatzen da sektore bakoitzean. Azpisektore batzuetan, eragile batzuek besteek baino zeregin nabarmenagoa betetzen dute, eta nork bere bitarteko espezifikoak ditu banaketa-funtzioak gauzatzeko.
- 2. Digitalizazio-prozesua:** digitalizazio-prozesuak konplexuago bihurtu ditu banaketaren funtzio tradizionalak, kanal eta prozesu berriak txertatuta. Kanal eta prozesu berrien ondorioz, gainera, eragile berri batzuk agertu dira zeharka. Hain zuzen ere, banaketaren kate-mailan askoz handiagoa izan da aldaketa digitalaren eragina.

Hori horrela, atal honetan, kulturaren bost azpisektoreetako bakoitzerako berariaz garatuko da gai hori: liburuak, arte eszenikoak, musika, zinema eta ikusizko arteak.

Sektoreei azpiala bana eskaini zaie, honela egituratuta:

- 1.** Balio-kate tradizionalaren aurkezpena, diagrama baten bitartez.
- 2.** Horri buruzko azalpena, banaketa harturik ardatz.
- 3.** Digitalizazio-prozesuak ekarri dituen eraldaketen azalpena.

Berezitasunetan sartu aurretik, nabarmendu behar da kasu guztietan ekoizpen aurreko etapetan edo horien baliokideetan lagatzen direla egile-eskubideak.



- Lehia berri eta handiari aurre egiteko, askotan espezializatzen edo kultur etxean eginkizunak betetzera daramaten estrategiak prestatzen dituzte liburu-dendek, bakoitzak bere publikoa garatuz, hurbileko kultura-jarduerak eginez eta liburu-biltegiak izatetik urrunduz. Argitaletxearen eta liburu-dendaren arteko harremana estutzen duten estrategia berriak sortu dira, eta bi alderdien mesederako izan daitezkeen eskusibotasunak ere agertu dira ondorioz.
- Erabiltzailea bera merkaturatze-prozesuaren alderdi aktibo bihurtzen da, fidelizazioa errazten eta sustatzen duen marketin mota berri baten eraginez.
- Argitaratzeko *crowdfunding*-era (teknologia mota hori eskaintzen duten zerbitzu/plataformetara) jotzea lagungarria da argitaletxeentzat, etorkizuneko salmentak zehazki jakin gabe inprimatzeak eta, ondorioz, biltegiak sor daitezkeen izakin-arazoez sortzen dituzten zailtasunak gaitzetzeko.
- Eskaripean inprimatzeak eta online banatzeak, halaber, egile berriak agertzeko eta argitaletxe txikiak garatu eta finkatzeko aukera eman dute; hala ere, termino absolutuetan, etekin askoz ere handiagoa ateratzen dute berek argitaratu eta banatzen duten plataforma handiek.
- Inprimatze digitalari esker (Offset-eko inprimatze tradizionalen ez bezala), errazagoa da eskaripean edo 1:1ean inprimatzea, eta horrek izakinen kudeaketa hobetzea ahalbidetu eta lanak katalogotik kendu beharra desagerrarazi du. Eskaripean inprimatzeko prozesuaren barruan, aldagai garrantzitsua da garraiatzeko eta inprimatzeko denbora, eta oraingoz askoz gehiago funtzionatzen du online dendetan fisikoetan baino.
- Argitalpen digitalak ere merkatu berria sortu du, bestelako euskarria behar baitu, eta kostuei, denborari, ezagutzei eta bitartekoei dagokienez agertu diren erraztasunek eragileen abaguneak eraldatu dituzte. Arestian aipatutako 2018ko «Liburuaren sektorea Espainian» txostenaren arabera, argitalpen digitala % 27,5 izatera iritsi zen 2016an, paperezko argitalpenak baino gehiago hazita.

## 4.2 Arte eszenikoak

Arte eszenikoen kasua bereziagoa da; izan ere, zaila da sektorea eskema industrial batean txertatzea. Dena dela, esan daiteke sorkuntzaren, ekoizpenaren, banaketaren eta erakusketaren arlokoak direla balio-kateari buruzko gogoetan kontuan hartu beharreko eragile nagusiak.

**2. irudia.** Arte eszenikoen sektoreko balio-kate tradizionala



Arte eszenikoak balio-sorkuntzako eskema industrialean txertatzeko zailtasunak lotura du sektorea industrialtzat katalogatzeko zailtasunarekin. Haien izaera dela eta, arte eszenikoak ezin dira bihurtu industria-ekoizpeneko prozesu baten bitartez seriean egindako produktu.

Gainera, adierazi behar da ezen, arte eszenikoen sektorean, beste kasu batzuetan baino nabarmenago ere, bi sistema agertzen direla elkarrekin: bata jardunbide sozialena (komunitatekoak, hezkuntzakoak eta/edo amateurrak) eta bestea jardunbide ekonomikoena. Bigarren horretan, merkatuko ekonomiaren dinamikan aritzen diren eragileak eta hirugarren sektoreko ekonomia sozialean aritzen direnak bereiz daitezke. Banaketaren gaineko interesak jardunbide ekonomikoekin du zerikusia. Ekonomia sozialari dagokionez, hein handi batean gizarterako onura bilatzen duten enpresak dira, eta baliabide publikoen zati garrantzitsua behar dute. Merkatuko ekonomiaren kasuan, etekinak lortzea eta dibidenduak banatzea bilatzen duten enpresak dira.

Arte eszenikoen sektorean, administrazio publikoak oso garrantzi nabarmena du, eta horrek eragina du berezko kasuistika zehazteko garaian. Administrazio publikoaren garrantzi handiak zerikusia du, diruzko baliabideekin ez ezik, sektorea sustatzeko eta hura «gauzaz» babesteko ekimenetan parte hartzearekin; horren barruan, zinema-jaialdien, azoken, sareen eta zirkuituen antolaketa eta finantzaketa da ardatz nagusietako bat.

Berezitasun horiek gorabehera, balio-kateko ohiko kontzeptuetatik edo tresnetatik abiatuta hurbildu daiteke sektorearen analisira. Arte eszenikoen kasuan, sorkuntzak antzezlaneko testuaren egilea hartzen du barnean. Lantalde artistikoa eta lantalde teknikoa lanaren ekoizpenean sartu ohi dira. Askotariko sektore osagarriek hartzen dute parte ekoizpenean: eszenografia, tresneria, makillajea, argiztapena, makineria...

Erakusketa-guneak askotan publikoak dira, eta haiek ere beren ekoizpenak egiten dituzte. Zenbaitetan koproduzioak dira, eta edozein ekoizpenerako ohiko jardunbidea da zirkuitu eta sare batzuen barruan birak egitea. Banaketa-entresak baino gehiago, programatzailerak edo erakusketa-guneak daude: beren denboraldietarako ekoizpenak «begiztatzen» eta «fitxatzen» dituzte, eta/edo haiekin harremanetan jartzen dira, zirkuituetan eta sareetan parte hartu eta gero. Hala, banaketaren lotura-lanak betetzen dituzte, programatzailerak eta konpainiak/ekoizpenak elkarrekin harremanetan jarriz. Zirkuitu eta sare horien gehieneko ekintza-erradioa autonomia-erkidegoetako administrazio-mugekin bat etorri ohi da.

Espainiako Gobernuaren 2007ko antzerki-plan orokorrak zehaztutakoaren arabera, sektoreko eragileak orokorrean koordinatzea da banaketaren/erakusketaren arazo handiena. Arte eszenikoetan, banaketak lotuko lituzke ekoizpena eta erakusketa, erakusketarako eskaintza ikusaraziz, baina berriaz zeregin horretan aritzen diren eragile gutxi daude. Batez ere, zirkuituetatik abiatuta formalizatzen da banaketa, konpainien eta erakusketa-guneetako erakunde programatzaileen artean.

Arte eszenikoen sektorean, teknologia berriek eta eraldaketa digitalak eragin zabala izan dute arte eszenikoen kudeaketan (bereziki, merkatuari/erabiltzaileari dagokionez), baina oraindik mugatua da balio-katearen sorkuntza, ekoizpen eta banaketa mailetan. Oro har, oso hedatuta ez dauden zenbait esperientzia berritzaileetan mamitu dira:

- Lehenik eta behin, teknologiak eta aldaketa digitalak nabarmen eraldatu dute marketina, eta ondorioz barnean hartu dituzte bezeroekiko harremanak kudeatzeko sistemen (*Customer Relationship Management* edo CRM) ikuspegi kontzeptualak –hau da, pertsonalizazio eta harreman handiagoko marketina garatzearekin lotutakoak– eta publikoarekin elkarreragiteko eta haien atzeraelikadura jasotzeko plataforma eta ekimenak.
- Ekoizpen eszenikoaren fasean, argiak, soinuak eta 3D inprimatuz egokitzapenak egiteko aukerak nobedade artistikoak ekarri dituzte eszenografian, soinuan eta argiztapenean, alor horietan egin diren aurrerapen teknologiko eta digitalei esker.
- Sorkuntzari dagokionez, badira sorkuntza banatu duten zenbait esperientzia, baina ez dira inola ere ohiko jardunbideak.
- Banaketari eta merkaturatzaleari dagokienez, aurrerabide teknologiko eta digitalak hainbat tresna jarri ditu eskura, eta programatzaileen, sortzaileen eta ekoizleen arteko distantziak laburtu ditu, adibidez online katalogoak eta baliabideak erraztuz. Interesgarria da, halaber, kanal berrien bitartez ustiatzeko molde berriekin esperimentatzeko bidea zabaldu duela, medioen arteko konexioa eta elkarreragina handituz: horren erakusgarri dira, besteak beste, agertoki hedatuko proiektuak, pantailarako antzerkia, *streaming* bidezko emanaldiak, eskaripeko bideoak, eta abar.
- Berriaz eraldaketa digitala izan gabe, arte eszenikoak beste sektore batzuekin elkartu dira aisialdiko eta/edo turismoko pack konbinatuak eskaintzeko. Nabarmendu behar da digitalizazio-prozesuak sektoreen artean sustatu duen bateratze handiagoa dela elkarrekin horien oinarria; izan ere, bazkide potentzial berriak eta negozio-aukera berriak eskaini ditu (adibidez, musika-plataformen eta automobil-marken arteko elkarrekin bigarrenen lehenengoan zerbitzuak eskaintzeko; eta telebistek ikus-entzunezkoen plataformekin egindakoak, zuzenean haien zerbitzuak barnean hartzeko eta, hala, desberdinu eta balio erantsia eskaintzeko).

## 4.3 Musika

Musikari dagokionez, banaketari buruzko gogoetan ekoizleak nabarmentzen dira.

**3. irudia.** Musika-industriaren sektoreko balio-kate tradizionala



Musika-sorkuntzan (konposizioak, abestiak, grabazioak nahiz diskoak) batez ere egileak, artistak eta ekoizleak daude. Egilearen edo ekoizlearen ekimenez jartzen da abian sorkuntza, hitzarmen edo kontratu bat sinatuta. Ekoizleak artista «fitxatzea» edo artistak ekoizlearengana jotzea, biak ala biak gerta daitezke. Argitaratzaileek eginkizun nabarmena betetzen dute batzuetan, haiek arduratzen baitira lana fintzeaz, zer sartu beharko litzatekeen erabakita.

Ekoizpena musika-estudioetan gauzatzen da, grabazio baten bitartez, eta horrek moldatzaileen eta irudi-diseinatzaileen lana ere hartzen du barnean. Ekoizpenaz gain, aurreproduktzioa eta postproduktzioa egiten dira. Eskuarki, aurreproduktzio-fasean egile-eskubideen kudeaketa eta hitzarmen osoa adosten dira. Postproduktzioan fintzeko zereginak egiten dira, lana editatuz, nahastuz eta masterra ekoiziz.

Musikaren kasuan, oro har, ekoiztetxe nagusiak (*majors*) eta independenteak (*indies*) bereiz daitezke: hau da, nazioartekoagoak, edo tokian tokikoak edo nitxo zehatz batekoak. *Major* hitzak ekoizpen komertzialen bitartez mundu osoko merkatuan

nagusitu diren konpainia transnazional handiei egiten die erreferentzia; *indie* delakoena lana, aldiz, tokian tokiko artistekin eta taldeekin, eta merkatu eta publiko zehatzagoekin garatzen da, lurraldeko musika-ekosistemearekin harreman hurbilagoan.

Nagusiki, ekoizleek egiten dute sorkuntzen/ekoizpenen ustiapen komertziala. Merkaturatzeak hala salmenta nola zenbait mediotan erreproduzitzea hartzen du barnean. Ekoiztetxeak jasotzen ditu etekinak eta, artistarekin eta egileen kudeaketa kolektiboko erakundeekin zer akordio eta kontratu duen, itundutakoa likidatzen du.

Musikaren kasuan, funtsezko eginkizuna betetzen dute kudeaketa kolektiboko erakundeek, erreproduktzioa eta jendaurreko komunikazioa ekintza ugari egiten direlako (arte eszenikoetan ez bezala, seriean eta industrialki ekoizteko aukerak halako erakundeengarapena eta garrantzia sustatu du). Lana ustiapen-kanaletan egindako bidearen arabera ordaintzen da.

Izaera digital nabarmena duen merkatu bateranzko bilakaera dela eta:

- Pisu handiagoa dute zuzeneko emanaldiek norik bere burua ezagutzera emateko eta diru-sarrerak izateko, eta, askotan, nabarmen txikitu da euskarrietako salmenten eta erreproduktzioen garrantzia.
- Ekoizleen eginkizuna aldatu da, eta, espezifikotasun handiagoz, marketing-agenteen lanak betetzen dituzte, artisten publizitatea egiteko; kasuan-kasuan, egileak eta ekoizleak baino garrantzi askoz ere handiagoa dute artistak eta managerrak. Musikaren kasuan, bereziki, ekoizpeneko eta merkaturatzeko eginkizunen bateratzea ekarri du integrazio bertikalak.
- Garrantzi handiagoa hartu dute kudeaketa kolektiboko erakundeek, eta haien zereginak konplexuago bihurtu dira, musika-lanak ustiatzeko edo erreproduzitzeko molde berriak direla eta; izan ere, pirateriaren fenomenoak eragin nabarmena izan du lanen erreproduktzioan eta finkapenean, eta, alor horretan, erreproduzitzeko aukera ematen duten euskarri fisikoen gaineko kanonak garatu dira (CD eta USB memoriatarako, adibidez), eta kanon digital berriak garatzen ari dira (tableta eta mugikorretarako).
- Musika-denda fisikoak desagertu, eta euskarri fisikoen salmentak eta saltokiak murriztu dira.

- Streamingeko edo eskaripeko erreproduzio digitaleko zerbitzuak ematen dituzten online banaketa-plataformak agertu dira, ordainpeko modalitateetan nahiz publizitatearen bitartez finantzatutako doako modalitateetan.
- Gaur egun, artistak hartzen du ekoizpenaren zati handiena bere gain, eta entzuleengana iristeko marketinaz gain oso gutxi behar duen lan bat entregatzen dio ekoiztetxeari.
- Aurrerapen teknologikoei esker, merkeagoak dira eta hedatuagoak daude artista berriei beren grabaketak egiteko aukera ematen dieten tresnak eta jakintzak. Era berean, grabazio profesional asko musikako estudio partikularretan egiten dira.
- Euskarrian saltzea eta arreta ematea zailagoa den testuinguru batean, *crowdfundingak* eta publiko propioaren fidelizazioak eragin garrantzitsua izan dute artistengan eta musika taldeengan (bereziki, hasiberrietan), eta beren lanak ekoizteko eta ezagutzera emateko aukera eman die.

## 4.4 Zinema

Zinemaren eta musikaren kasuek berezitasun komun batzuk dituzte, gogoan harturik ekoizpeneko eragileek funtsezko zeregina betetzen dutela banaketan. Oro har, balio-kate hau hartu daiteke kontuan:

4. irudia. Zinemaren sektoreko balio-kate tradizionala



Zinema hitzaren bitartez aipatutako ikus-entzunezkoen barruan, telesailak, zinemagintza, dokumentalak eta marrazki bizidunak sartzen dira, baina, adiera zabalagoan, musika-kontzertuak eta finkatutako antzezlanak ere har litezke barnean. Nolanahi ere den, jabetza intelektualak egile-zigilu propioa eta pertsonala duten ikus-entzunezko sorkuntza originalak babesten ditu.

Musikarekin gertatu bezala, ekoizleak ere garrantzia du sorkuntza-fasean. Zinemaren kasuan, idazleak ez ezik, ekoizleak eta are zuzendariak ere esku har dezakete.

Ekoizpen zinematografikoak musikakoak baino kostu askoz ere handiagoa du; izan ere, aldi bereko hainbat ekoizpen-prozesu edo -faktore antolatzen ditu, eta promozioaz eta finantzaketaz ere arduratzen da. Musikagintzarekin alderatuz gero, giza baliabide eta baliabide tekniko gehiagok parte hartzen dute bai aurreproduzio-fasean (jantziak, makillajea, tresneria...) bai postprodukzioan (edizioa, grafismo elektronikoa...), eta ekoizpeneko/grabaketako faseak berak ere teknikariz osatutako giza taldea, behar diren materialak eta talde artistikoa hartzen ditu barnean.

Merkaturatzeko oinarria, tradizioz, erakusketa-areto indartsuen sarea izan da, lurraldean ezarpen handia duen sare bat, eta garapen teknologikoak banaketaren eta erreproduzioaren eskemak irauli ditu, musikagintzan gertatutakoaren neurri eta modu bertsuan.

Zinemaren sektorean, ustiapenari dagokionez, tarteko eragileen sareak egoera konplexuagoa sortzen du. Jabetza intelektualeko eskubideak aurreproduzio-fasean kudeatzen dira. Ekoiztetxeak pisu handia duenez, lana ustiatzeko eskubideen titulartasuna jasotzen du, eta hurrengo eragileei lagatzen dizkie eskubideok. Egileek, artistek eta musikariek kudeaketa kolektiboko erakundeengandik jasotzen dituzte adostutako kopuruak, kontzeptu jakin batzuekin lotutako ustiapena dela eta: erakustea, alokatzea eta saltzea, eta kopia pribatua eta jendaurreko komunikazioa egitea. Gainera, kontratu bidez jasotzen da lanaren ordaina, eta kontratu horretan euskarrian finkatzearekin eta erreproduzioarekin lotutako ustiapen-eskubideak lagatzen dituzte.

Ustiapen-ildo tradizional horri jarraikiz, ekoizleak merkaturatzaile bati lagatzen dizkio toki edo merkatu jakin batean eta denbora zehatz baterako merkaturatzeko eskubideak. Banatzailea banaketa-eskubidez baliatzen da, eta erakusketaria, berriz, lehenak laga dion erakusketa-eskubidez. Zinemek ustiapen-aukera bat baino gehiago dituzte: ehuneko jakin bat, oroharreko zenbatekoa, edo salmenta irmoa. Azken bi horiek ez dira hain ohikoak. Zinemek txarteldegian lortutako diru-sarrerak partekatzen dituzte, eta negozio-ereduak jan-edanaren salmentari esker funtzionatzen du batik bat.

Kontuan hartu behar da, gainera, banatzaileek eginkizun garrantzitsua bete dezaketela ekoizpenaren finantzaketan, aurrerakinen eta bermatutako minimoen formulen bitartez.

Hori horrela, digitalizazio-prozesuak honako eragin hau izan du zinemagintzaren sektorean eta balio-katean:

- Sorkuntzari eta ekoizpenari dagokionez, postprodukzioak garrantzi handia hartu du, aurrerapen teknologiko digitalak direla eta.
- Online banaketaren garrantzia ere handitu da, eta horrek eragin nabarmena izan du bai erakusketa-guneen sarean, betiko indarra galdu baitu, bai bideoklub delakoetan, ia-ia desagertu egin baitira, online erreprodukzioak euskarri fisikoei gailentzen ari zaizkielako.
- Orobat, ustiapen-kanalak ugaritu egin dira, askotariko bitartekoak daudelako: hasi euskarri fisikoetatik (adibidez, DVDa) eta zenbait metodoen bitartez online banatzeko plataformetara.
- Garapen teknologikoak banaketa-prozesuak erraztu eta kostuak merkatu ditu, formatu digitaleko homogeneizazioari eta proiektzio-tresna digitalei esker.
- Musikagintzan bezala, pirateriak erronka garrantzitsuak agerrarazi ditu banaketan eta eskubideen ustiapenean, eta jardunbide berriak sortu ditu arauak pixkanaka soilik zehazten dituen ingurune digital batean. Zinemari dagokionez, azken urteetan askoz ere garrantzitsuagoa izan da estekak biltzen dituzten webguneen bitartezko erreprodukzioa, grabatutako euskarriekin alderatuz gero; nolahi ere, biek ala biek eragin handia izan dute, eta ondorioz behera egin dute txarteldegiko diru-sarrerak.

- Beste sektoreetan bezala, integrazio bertikala gertatu da, eta musikaren sektorean gertatutakoaren ezaugarri bertsuak ditu. Ekoiztetxeak garrantzi handia hartu du banatzaile eta are erakusketari gisa ere, eta prozesu komertzial guztiak bere kontrolpean hartzeko ahaleginak egin ditu bere marjinak hobetzeko.
- Nazioartekotzearekin batera, orain garrantzi handiagoa dute nazioarteko salmenta-agenteei banaketa-eskubideak atzerrian banatzeko, eta ekoiztetxeen eta nazioarteko banatzaileen arteko bitartekaritza-funtzioa betetzen dute; gainera, atzerriko banaketa-aukera handiagoak dituzten produktuen diseinua sustatu da, eta horretarako mekanismo tradizionalak sendotu dira: besteak beste, zinema-jaialdiak eta merkatu zinematografikoak.

## 4.5 Ikusizko arteak

Ikusizko arteen kasuan, berezitasun nagusia da eragileek integrazio eskasa dutela balio-katearen bitartez azaldu nahi denaren moduko balio-agregazioko prozesu batean. Ikusizko arteen sisteman funtsezko zenbait eginkizun identifika daitezke, baina ikusizko arteei dagokionez balio-katea lausoa da, eta, bertan, batez ere, sorkuntzak eta erakusketak dute pisua.

5. irudia. Arteen sektoreko balio-kate tradizionala





Kasu honetan banaketari buruz hitz egiteko, prozesuaren hasieran dagoen artistaz gain, bi zirkuitu nabarmendu behar dira: bata artea merkaturatzeko, eta bestea erakusketa soilerako. Bietan ala bietan, hein handi batean erakusketari diren agenteek esku hartzen dute banaketan:

- Lana merkaturatzen amaitu ez eta erakusketa soilaz arduratzen den zirkuituan, arte-zentroak eta museoak dira eragile nagusiak.
- Merkaturatzeko zirkuituan, aldiz, arte-galeriak eta arte-azokak dira eragile nagusiak (erakusketak ere egiten dituzte).

Sorkuntzaren eta erakusketaren artean, erakusketako komisarioek betetzen dute bitartekaritza-funtzioetako bat; haiek arduratzen dira artista baten edo batzuen lanak hautatu eta ordenatzeaz, irizpide eta diskurtso propioa duen erakusketa-gune batean proposamen bat sortzeko.

Ikusizko arteetan, gainera, arte-salerosleak, enkante-etxeak eta, arte-azokekin batera (bereziki nazioartekoetan), ikusizko arteen negozioa mugitzen duten agente inbertitzaileak nabarmendu behar dira.

Gainerako sektoreekin alderatuta, ikusizko arteetan digitalizazio-prozesuak ez du halako eragin espezifikoak edo hausgarria izan, baina edonola ere kudeaketa-moldeak eta tresnak irauli ditu, hasi erakundeen barne-komunikaziotik, eta erabiltzailearekiko komunikaziora edo marketinera, digitalizazio-prozesuak ahalbidetzen duen eduki-erproduktio masiboa ere barnean hartuta. Dena dela, nabarmendu daiteke, batez ere merkaturatzen ez duen zirkuituari begira, funtsezko eginkizuna betetzen dutela arte-museoek eta -zentroek:

- Irudien digitalizazioari esker, testuinguru digitalean artelanak ikusteko aukerak handitu dira, jendarteratzeko mekanismo berriak gehituta.
- Esperientzia fisikoak hedatu egin dira esperientzia birtualen bitartez, eta esperientzia kulturalaren espazioa eta denbora ere zabaldu dira. Garapen teknologikoak, gainera, bestelako edukien erabilerari eman dio bide (literatura, ikus-entzunezkoa, musika), erabiltzaileak ikusizko arteetan izango duen esperientzia garatzeko.

— Ildo horretan, estrategia berriak garatu dituzte arte-zentroek eta -museoek, adibidez, ibilbide birtualak prestatuz, edo are erakusketak aurkezteko modua aldatuz ere, mundu digitalaren osagai diren elementuak txertatuta: artelanarekin elkarreragina, zenbait sortzaile eta diziplina biltzen dituen sorkuntza kolektiboa, ikusleak bilduma batekin loturarik ez duten ibilbideak egiteko askatasuna...

— Digitalizazioak eta teknika berritzaile jakin batzuek (adibidez, 3D Hiperescana) ikusizko arteetako ondarearen zati bat hobeto kontserbatzeko aukera eman dute, eta ez beste euskarri batzuetan erreproduzitzeko soilik.



# 5\_ Joera globalak

Egun, inoiz baino gehiago, askotariko bitartekoen bidez barreiatzen dira kultura-edukiak. **Dibertsifikazio** nabarmena egon da, eta eragile, kanal eta estrategia berriak agertu dira. Aldi berean, **kontzentrazio** handia ere suertatu da. Berez kulturalak ez, baizik eta telekomunikaziokoak, informazioaren teknologikoak edo logistikoak diren plataforma eta sare digital handiek bildu dute banaketa kulturalarekin lotutako negozioa, sarbide-medioen bitartez, eta ingurune fisikoan izan duten garapenean ere eragin dute (izan ere, salmenta eta banaketarako ez ezik, nabarmentzeko eta publizitatea egiteko ere balio du medio digitalak).



Beste sektore horiekin **bateratzea** eta, sarbide-bitartekoen kontrolari esker, ateen zaindari bihurtutako operadore handi horiekin lehiatu beharra direla eta, askotariko eta tokian tokiko estrategia indibidualak garatu behar izan dituzte betiko kultura-eragileek, jardunean jarraitu ahal izateko. Sektorean eraldaketa-eredu finkorik izan gabe, balio-kate tradizionalaren egituraren postu bera duten eragileek estrategia desberdinak garatu dituzte testuinguru berrian aurrera ateratzeko aukerari heltzeko. Bakoitza bere zehaztapenekin, estrategien aniztasunak honako hauekin du lotura, azken batean:

- Gaur egungo banaketa-estrategia hedatzea
- Banaketatik lan-eremu berriak garatzea
- Agregazioko eta bitartekaritzako ekimen berriak, aliantzetatik abiatuta



Egokitzeko saio horiek ageri diren arren, kultura-eragile tradizional batzuk ez dira oraindik aldatzeko gai, edo ez dute aldaketei begira jarduten, eta estrategia tradizionalen antzekoei eusten diete, immobilismotik eta pentsamendu analogikoaren eskemetatik gertu. Estrategien eta posizionamenduen aniztasuna hiru jarrera hauen emaitza da, halaber:

- Gogoa
- Ardura
- Erresistentzia

Dibertsifikazioa ingurune-aldaketak eragindako presioaren, emandako aukeren eta sortutako erantzun desberdinen ondorioa da. Horrek edukien kontzentrazioaren eta dibertsifikazioaren arteko paradoxa sorrarazi du, baita eragileen tamainarekin lotutako bereizkuntza bat ere:

- Batetik, eskala handian eta/edo modu transnasionalean diharduten operadore handiak daude, eduki ugari kontzentratu eta integrazio bertikalaren alde egiten dutenak.
- Bestetik, eragile txikiak, beren burua desberdintzea, aurrera ateratzea eta finkatzea bilatzen dutenak, laneko eremuak balio-katetik harago hedatuta, fenomeno lineal batean, eta sare-konexio baliotsuak sortuta.

Sektorearen zati nabarmen batean gertatu den kontzentrazio-dinamika bateratzearekin eta operadore handien bidez transnacionalizatzearekin lotuta dagoenez, joera global batek **nazioartekotzearekin** du zerikusia. Era berean, nahiz eta eragile ertainek eta txikiak ere etekina atera diezaieketen elkar konektatutako ingurune digitalak emandako nazioartekotze-aukera berriei, ikuspuntu ekonomikotik operadore handiak dira nazioartekotze horren motorrak eta onuradunak.

Horrek guztiak gaur egungo egoerari buruzko zalantza bat sortzen du. Alde batetik, litekeena da eraldatzeko eta jokaleku berrira igarotzeko prozesu batean murgilduta egotearen ondorio izatea gaur egungo egoeraren konplexutasuna. Aitzitik, baliteke jadanik haxe izatea jokaleku berria. Hala, bada:

- Oraindik trantsizio-unean bagaude, epe ertainera balio-katea modu ordenatuan berrantolatzea izan liteke emaitza, eragileek egoera irakurri, eta horretarako prestatu eta egokitu ahal izan eta gero.
- Bestetik, gaur egungo egoera behin betikoa bada, balio-kate tradizionalaren aldean hertsiki sailkatzeko zailak diren eragile gutxi zehaztuak agertuko lirateke jokalekuan.



# 6 EAEko banaketaren azterlanera hurbilketa

Gaur egungo kultura-banaketa giltzarrietan sakondu behar diren ondorioz sortu da azterlan hau, Kulturaren Euskal Behatokiaren Arte eta Kultura Industrietako estatistikan txertatzeko asmoa zela eta. Hasierako planteamenduan, produkzio eszenikoa, ikus-entzunezkoa, editoriala eta diskografikoa hartu ziren barnean, baita arte eszenikoen, ikusizko arteen eta musikaren programazioa eta erakusketa ere. Ondoren, liburuaren eta diskoaren merkataritza sartu ziren. Azken edizioaren landa-lana 2018an egin zen, eta orduan txertatu ziren zinema-aretoak eta sormen-industriak. Hala, arian-arian azterlanaren irismena handitu egin da, bai ikuspuntu sektorialetik, bai balio-katearen ikuspuntutik. Hedatzen ari zela, estatistikan banaketa gehitzeko aukera plazaratu zen. Baina zenbait zailtasun agertu ziren, eta, haien ondorioz, banaketa EAEko kasuan txertatzeko aukera aztertu aurretik, beharrezkoa bihurtu zen haren ezaugarriei buruzko azterlan zehatza egitea.

Mota bateko baino gehiagoko zailtasunak dira:

- Analitikoak:** EJSN Ekonomia Jardueren Sailkapenean, ikus-entzunezkoen sektorean soilik sartzen da banaketa barnean (5917 eta 5918, zinematografiako eta bideoak banaketa-jarduerak, eta telebistako programen banaketa, hurrenez hurren). Estatistika osatzen duten gainerako ataletan (arte eszenikoak, musika eta liburua) ez da ageri. Horregatik, bide antzua da estatistikaren bitartez jorra dadila planteatzeko.
- Zentsukoak:** azterketa estatistiko trinkoa planteatu ahal izateko, erabilgarri dagoen zentsua nahikoa izan behar da. Alde batetik, kontuan hartu behar da aipatutako estatistikan helbide fiskala EAEn duten eragileak sartzen direla soilik. Horrek asko mugatzen du zentsua sektoreen zati handi batean, barneko kontzentrazio-prozesuak eta banaketak berak kasuan-kasuan duen funtzionamendua direla eta. Zenbait sektoretan, esku bakarreko hatzekin zenbatu daitezke banatzaileak; beste batzuetan, ekoiztetxeek EAEtik kanpoko banatzaileekin egiten dute lan; eta beste batzuetan konpainia edo enpresa programatzaileak berak arduratzen dira banaketaz ere. Horrenbestez, ez dugu tratamendu estatistiko zehatza egiteko adina zentsu.
- Funtzionalak:** Baldin eta, aurreko atalean azaldu den bezala, balio-kate tradizionalari dagokionez berrantolatatu behar izan diren edo hertsiki sailkatzeko zailak diren eragile gutxi zehaztuak izango badira banaketaren jokaleku orokorraren ezaugarri nagusia, ez du zentzurik azterketa estatistiko zehatza planteatzea. Egonkortasun gutxi aldakorra izango genuke aurrean. Hain zuzen ere, ia-ia ez dago hori jorratzen duen iturri estatistikorik, eta hala egiaztatzen ahal izan zen Behatokiak 2018ko maiatzean antolatutako jardunaldietan, non europar adituek une hauetan banaketa aztertzeke zailtasuna berretsi baitzuten.

Laburbilduz, ezin da txertatu Arteen eta Kultura Industrien estatistikaren barruan tratamendu espezifiko duen funtzio gehigarri gisa. Horrek ez du esan nahi banaketa aztertu ezin denik. Aukera bat zeharka aztertzea izango litzateke, jadanik estatistika osatzen duten ekoizleei, programatzaileei eta erakusketariei banaketari buruzko galderak eginez.

# 7 Azken iruzkina

Digitalizazio-prozesuak eragin handia izan du, eta oraindik aribidean dauden eraldaketak ekarri ditu. Maila kuantitatiboan, aldaketa digitala kultura-sektore guztietan izan da garrantzitsua, baina eragin desberdina izan du haietako bakoitzean. Joera globalen artean, dibertsifikazioaren eta kontzentrazioaren arteko paradoxa azaleratu da bateratze-fenomenoaren gainean. Digitalizazioak, eta berekin ekarri dituen fenomenoek, nazioartekotzea bultzatu dute orobat.

Aurkezpenean azaldu den bezala, EAEn gaur egun ez dago banaketari buruzko datu ofizialik. Kultura-sektoreko operadoreei buruzko estatistika-eragiketetan (Arteak eta kultura-industriak eta Enpresak eta enplegua), sailkapenak ez du barnean hartzen banaketa.

Hala eta guztiz ere, faktore hauek nagusi diren errealitate batean, zailagoa bihurtu da gaia EAerako estatistika-operatiba baten bidez jorratzeko aukera (eta beharra):

- Integrazio bertikala; hau da, eragile berarengan rol bat baino gehiago biltzen direla.
- Lehia handiagoa, eragile tradizionalen funtzioak lausotzen dituzten estrategia berriak sorrarazi baititu.
- Balio-katea (lineala eta horizontala) eraldatu eta balio-konexio (sarekoak, norabide anitzekoak) bihurtu dituzten estrategiak.
- Kontzentrazioaren eta dibertsifikazioaren paradoxa, zeinak kulturazko edukiak hedatu/demokratizatu, baina handienak handitu eta txikiak subsumitu baititu (Mateo efektua).

EAeko sektoreetan, jokalekua bi muturren artean mugitzen da: edo badira banaketan argi eta garbi nagusi diren banatzaile (gutxi) batzuk, edo urriak dira, eta besteak beste banaketa-funtzioak gauzatzen dituzten askotariko eragile bereziak ageri dira jokalekuan. Hori horrela, hurrengo operazioetan EAeko banaketaren funtzioa sar dadila proposatzen da, baina unibertso berriak txertatu gabe. Sektore bakoitzean, eta bakoitzaren zehaztasunen arabera, banaketari buruzko galderak egingo zaizkie ekoizleei edo erakusketariei. Horrek esan nahi du banaketari buruzko informazioa edukiko dela, baina ez banatzaileei buruzkoa.



# Banaketak kulturen duen zereginari buruzko azterketa



Kulturaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de la Cultura



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA